

“UROBORO ITURRIA FUENTE DE UROBORO”

UROBORO-a ikur bat da, non, Suge itxurako forma zirkularra duen animalia batek, bere isatsa jaten agertzen den. Honek, ziklo iraunkorra irudikatzen du eta ekonomia zirkularrarekin erlazio zuzena duela ikusirik, berau erabiltzea erabaki da.

Ondoren, mekanizazioan erabiltzen ditugun materialekin eta sortzen ditugun hondakinekin, iturri bat sortu da eta bertan, guretzat hain garrantzitsua den taladrinak, iturriko bidexidorrak gurutzatuko ditu, EGIN-ERABILI-BERREGIN-BERRERABILI-BERZIKLATU zikloa eginez.

Horrela, taladrina berri bat asmatu dugu, inguruarekiko oso arriskutsua izatetik, Uroboro iturritik pasatu ondoren, berrerabilgarria eta ez arriskutsua bihurtuko dena.

TOPA!!!

UROBORO es un símbolo, donde un animal con forma circular y aspecto de serpiente aparece comiéndose su cola. Representa un ciclo sostenible, y visto que tiene una relación directa con la economía circular, se ha decidido utilizarlo.

Después, con los materiales que empleamos en el mecanizado y los residuos que generamos, se ha creado una fuente en la que la taladrina, tan importante para nosotros, atravesará los atajos de la fuente, completando así el ciclo HACER-UTILIZAR-REHACER-REUTILIZAR-RECICLAR.

De este modo, hemos ideado una nueva taladrina que, de ser muy peligrosa para el entorno, tras su paso por la fuente de Uroboro, se convertirá en reutilizable y no dañina.

¡¡¡UN BRINDIS!!!

“BIRZIKLAPENA ITSASOKO ITXAROPENA EL RECICLADO PARA UN MAR ESPERANZADO”

Galdaragintza eta soldadurako tailerlean sortzen diren hondakinei bigarren bizia eman zaie. Txapekin olatuak, arrainak eta hondakinak irudikatu dira eta elektrodo zaharrei erabilera berri bat eman zaie sare bat osatuaz.

Eskultura honekin, lurreko kontsumo ikaragarriak eta birziklapen urriak itsasoari eragiten dion kaltea erakusten dugu. Egungo itsasoko hondakin kopurua bertako arrain kopurua baino handiagoa da jada.

Gure eskulturaren oinarrian, itsasoko olatuak azaltzen dira eta bertako bizitza adierazteko arrain batzuk azaltzen dira. Goikaldean osterak, elektrodoz osatutako sare bat dago. Sare horrek itsasoko hondakinak batzen ditu. Modu horretan, itsasoa garbitzen da hondakinak kenduz eta hondakin horiei beste erabilera bat eman ahal zaie birziklatuz.

Laburbilduz, eskultura honekin esan nahi dena da, kontsumo arduratsu batekin, berreribalpena sustatuz (ahal den neurrian) eta itsasoko hondakinak jasota gero birziklatzeko, mundo osasuntsuago bat lortuko dugula. Hori dela eta, mundo osasuntsu bat adierazteko, eskultura gainean zuhaitz eta txori batzuk jarri dira mundo garbi eta osasuntsu bat irudikatzen.

“HOR DAUKAGU GURE GAURKO ETEKINA
BERE IZENA HONDAKINA
BIHAR EZ EGOTEA GURE GRINA”

Se ha dado la segunda vida a los residuos que se generan en el taller de calderería y soldadura. Con las chapas se han representado olas, peces y escombros, y se ha dado un nuevo uso a los viejos electrodos formando una red.

Con esta escultura mostramos el daño que causa al mar el ingente consumo en la tierra y el escaso reciclaje. De hecho, la cantidad de residuos marinos actual supera ya la de los peces autóctonos.

En la base de nuestra escultura aparecen olas y peces que expresan la vida que alberga el mar. En la parte superior hay una red de electrodos. Esta red recoge los residuos del mar. De esta forma se limpia el mar retirando los residuos, para así poder darles un nuevo uso mediante su reciclaje.

En resumen, lo que se quiere decir con esta escultura es que, con un consumo responsable, fomentando la reutilización (en la medida de lo posible) y reciclando una vez recogidos los residuos del mar, conseguiremos un mundo más saludable. Por ello, para expresar un mundo saludable, sobre la escultura se han colocado árboles y pájaros para representar un mundo limpio y sano.

“LO QUE HOY ES NUESTRO ACOMETIDO
LLAMADO RESIDUO
MAÑANA SU INEXISTENCIA SERÁ EL RESULTADO”

"4 R"

Gure eskulturak ekonomia zirkularren 3R-en kontzeptua hartu du oinarritzat: beRrerabili, biRziklatu eta muRriztu. (Reduce, Reuse and Recycle). Oinarriaz gain, beste R baten beharra ikusi dugu eta hori jaso nahi izan dugu gure obran. Hirugarren R-a aldaRrikatu hitzarekin lotzen dugu.

Eskulturan egurrarekin egin dugu lan gure egunorokotasunean bezalaxe. Egurra ekonomia zirkularrean lehengai nagusia da. Tailerrean genituen egur ezberdinetako txatalak, tronadura berrerabiliak eta material birziklatuak erabili ditugu eskultura sortzeko.

Gure xedea, ikusleak ere egurraren garapenean duen garrantziaz ohartzea da. Guk, egurrarekin lan egiteko hautua egin genuen bere garaian, hein batean etorkizuneko materiala dela sinesten dugulako baina horretako gizarte baten babesa behar dugu.

Nuestra escultura se ha basado en el concepto de las 3R de economía circular: reutilizar, reciclar y reducir. Además de la base, hemos visto la necesidad de otra R y eso es lo que hemos querido recoger en nuestra obra. Asociamos la tercera R con la palabra Reivindicar. Creemos que es imposible una Revolución en la economía circular sin Reivindicación.

La madera es la principal materia prima en la economía circular, por ello hemos trabajado inevitablemente con madera, como en nuestro día a día. Hemos creado la escultura con retales de diferentes maderas que teníamos en el taller, tarima reusada y materiales reciclados.

Nuestro objetivo es concienciar al espectador de la importancia que la madera en el desarrollo.



“BASAMORTU METALIKORUNTZ! HACIA EL DESIERTO METALICO”

Gure arte lan honetan adierazi nahi izan duguna da Amalurrak dituen gai guztiak xahutzen diardugula gizakiok eta ez badugu erremediorik jartzen “Basamortu Metalikoruntz” goazela.

Aldaketa klimatikoa gurean da eta ez gara gai ikusteko. Inoiz neurtu ez diren tenperaturak jasaten ditugu geurean, ibaien lehortea, berehalako eurijasak eta beste hainbat eta hainbat gertakari meteorologiko ditugu jada.

Pandemiak momento gogorrenetan etxeetan egotera behartu gintuenean gure industriak eta herriak geldiaraziz natura bere lekua hartzen hasi zen. Gizakiok kentzen diogun lekua. Baina horrek ere ez digu balio izan konturatzeko gure eragin negatiboak Amalurrari eragiten dionaz eta ondorioz geuri egiten gabiltzan kalteaz.

Geure esku dugu gure egunerokoan aldaketa txikiak egitea eta bidea pausoz pauso egin beharreko gauza bat da.

Eman ezazu gurekin, batera zerorrek pauso bat zure bizitzan amalurraren alde berandu izan baino lehen eta gure “Basamortu Metalikoruntz” arte lana izan dadila inoiz pasako ez den amets gaiztoa.

Lo que hemos querido expresar en esta obra es que los seres humanos despilfarramos todos los recursos de la Madre Tierra y que si no ponemos remedio vamos “Hacia el Desierto Metálico”.

El cambio climático lo hemos causado nosotros y no somos capaces de verlo. Sufrimos temperaturas que nunca hasta ahora habíamos experimentado, así como la sequía de los ríos, las lluvias torrenciales y muchos otros fenómenos meteorológicos.

Cuando la pandemia nos obligó a estar en casa en los momentos más duros, paralizando nuestras industrias y pueblos, la naturaleza empezó a ocupar su lugar. El lugar que le quitamos los humanos. Pero ni siquiera eso nos ha servido para darnos cuenta de cómo nuestra influencia negativa afecta a nuestra Madre Tierra y el consiguiente daño que nos estamos haciendo.

Está en nuestras manos el realizar pequeños cambios en nuestro día a día, y el camino hay que recorrerlo paso a paso.

Da con nosotros un paso en tu vida por nuestra Madre Tierra antes de que sea tarde y que nuestra obra “Hacia el Desierto Metálico” sea una pesadilla incesante.



“AZKEN TANTA ARTE ZUKUTUZ!!!”

iiiEXPRIMIENDO HASTA LA ÚLTIMA GOTA!!!”

Eskulturari “Azken Tanta Arte Zukutuz” izena jarri diogu, hartzen duen kizkur forma horrekin adierazi nahi duelako material bati **behin eta berriz** erabilpen berri bat eman behar zaiola adierazteko (**ekonomia zirkularra**).

Gure eskulturak forma **helikoidala** du, adierazi nahi duelako zirkular forma hori, baina 3 dimentsioetan, kizkur forma hartuz. Horretarako, gauzak garraiatzeko erabiltzen diren zurezko paletak erabili ditugu, desmuntatu, eta listoiak aprobetxatu ditugu eskultura sortzeko. Listoiaren arteko loturak egiteko paletetako iltzeak erabili ditugu. Beraz dena **berrerabili** dugu.

Eredu linealetik aldenduz: “Hartu, fabrikatu eta ezabatu” industria-prozesu linealek eta horien baitan dauden bizimoduak, amaiera duten erreserba erabiltzen dituzte bizitza baliagarri mugatua duten produktuak sortzeko.

Ikuspegi zirkularrak, aldiz, sistema bizien ideiak hartzen ditu. Bere ustez, gure sistemek organismo gisa funtzionatu behar dute, zikloan atzeraelikatutako izan daitezkeen mantenugaiak prozesatuz, bai biologikoki edota teknikoki.

Negoio-eredu zirkularra “negoio eredu bat da, eta, bertan, balio sortzeko kontzeptu-logika, eskaintza berrien ekoizpenean erabili ondoren, produktuetan atxikitako balio ekonomikoa erabiltzean oinarritzen da”.

La escultura la hemos titulado “Azken Tanta Arte Zukutuz” (Exprimiendo hasta la última gota), porque con esa forma de bucle que adopta quiere expresar la necesidad de dar **una y otra vez** un nuevo uso a un material (economía circular).

Nuestra escultura tiene una forma **helicoidal**, con el fin de expresar esa forma circular, pero en 3 dimensiones, representando un bucle. Para ello, hemos utilizado palets de madera que se emplean para el transporte de objetos; los hemos desmontado y hemos aprovechado los listones para crear la escultura. Para realizar las uniones entre listones hemos utilizado los clavos de los palets. Así que lo hemos **reutilizado** todo.

Alejándonos del modelo lineal: Los procesos industriales lineales de “coger, fabricar y eliminar” y los estilos de vida vinculados a ellos, utilizan reservas que se agotan para crear productos con una vida útil limitada.

El enfoque circular, en cambio, adopta ideas relacionadas con sistemas vivos. Desde ese enfoque, nuestros sistemas deben funcionar como organismos, procesando nutrientes que puedan ser retroalimentados durante el ciclo, tanto biológica como técnicamente.

El modelo de negocio circular es “un modelo de negocio en el que la lógica conceptual de generación de valor, una vez utilizada en la producción de nuevas ofertas, se basa en la utilización del valor económico retenido en los productos”.

“ESPIRAL”

Eskultura honen gaia ekonomia zirkularra da, lurrera jaisten diren 7 gezi ditu bi espiralen artean. Goitik behera hasten diren gezi horiek ekonomia zirkularren zikloaren fase bakoitza adierazten dute:

1. Lehengaia
2. Diseinua
3. Elaborazioaren ekoizpena
4. Banaketa
5. Kontsumoa, erabilera eta konponketa
6. Bilketa
7. Birziklatzea

Inguruko espiralak gure inguruan organikoki hazten den natura dira, eta funtsezko elementuak dira gure bizitzan, eta horiek dira, aldi berean, zikloa berrezartzen dutenak.

Eskultura hau bertikalki planteatu dugu, lurrean jartzeko, gure oinetan, lurrean baitago lehengaia, gure esku. Hala, erakusketan, birziklatzen dugun bezala, gure munduko biztanle gisa dugun zereginaz jabetzen gara, ez dugula eskultura zapaldu behar, ezta birziklatzearen garrantzia ere.

La temática de esta escultura es la economía circular, tiene entre dos espirales 7 flechas que descienden al suelo. Estas flechas empezando de arriba a abajo representan cada una de las fases del ciclo de la economía circular:

1. Materia prima
2. Diseño
3. Producción de la elaboración
4. Distribución
5. Consumo, utilización y reparación
6. Recogida
7. Reciclaje

Las espirales de alrededor son la naturaleza que crece orgánicamente a nuestro alrededor y que son un elemento fundamental en nuestra vida, que a su vez son las que restauran el ciclo.

Hemos planteado esta escultura verticalmente porque es una escultura para ponerla en el suelo, a nuestros pies, pues es en la tierra donde está la materia prima, a nuestro alcance. Así de alguna manera en la exposición, al igual que reciclando, tomamos conciencia de nuestro papel como habitante de nuestro mundo, que no debemos pisar ni la escultura, ni la importancia del reciclaje.

“EZUSTEKO HONDAKINA RESIDUO SORPRESA”

Orain arte egindako proiektuak analizatuta, konturatu gara eskultura horiek berak ekonomia zirkularraren esanahiaren edo irudikapenaren aurka doazela. Izan ere, proiektu horietan erabilitako materialari erabilgarritasun berri bat ematen zaio, apaintzea edo helburu bat irudikatzea baino gehiago. Hain zuzen, aurten haratago joan nahi izan dugu.

Gure diseinuarekin irudikatu nahi duguna da ekonomia zirkularraren lehiaketa honetarako egiten diren eskulturak edo proiektuak erabilgarriak izatea, eta apaintzea edo helburu bat irudikatzea baino zerbait gehiagorako balio izatea.

“Hondakin bat naiz, edo aukera berri bat? Erabil nazazu!”

Esaldi horrekin transmititu nahi duguna da hondakin baten itxura izan dezakeen edozein produktu objektu berri bat sortzeko aukera bat izan daitekeela, gure inguruan dugun behar baterako erabili ahal izango duguna, erosi edo fabrikatu behar izan gabe, horrela produktuari bigarren bizitza emateko.

Erosi, erabili, konpondu, berrerabili, birdiseinatu, fabrikatu, erabili, konpondu... eta ahalik eta hondakin gutxien izango duen planeta bat egin dezagun.

Analizando los proyectos realizados hasta el momento, nos hemos dado cuenta que esas mismas esculturas van en contra del significado o lo que representa la economía circular ya que al material utilizado en estos proyectos no se les da una nueva utilidad más que la de adornar o representar un objetivo y este año hemos querido ir más allá.

Lo que queremos representar con nuestro diseño es que las esculturas o proyectos que se realicen para este concurso de la economía circular sean útiles y sirvan para algo más que adornar o representar un objetivo.

“¿Soy un residuo o una nueva oportunidad?
¡Utilízame!”

Con esta frase lo que queremos transmitir es que cualquier producto que pueda parecer un residuo puede ser una oportunidad para crear un nuevo objeto el cual podamos utilizar para una necesidad que tengamos en nuestro entorno sin tener que comprar o fabricar, dándole así al producto una segunda vida.

Compra, usa, repara, reutiliza, rediseña, fabrica, usa, repara...y hagamos un planeta con el menor residuo posible.



“BERRITU ZIKLOA! ¡RENUUEVA EL CICLO!”

1 x 1 inguruko oinarria da, bi eremu nagusitan banatua: itsasoa eta lurra.

Lurrean, baso bat eta mendi baten tontorra daude, eta itsasora isurtzen den ibai bat jaisten da handik. Azeri bat ere badago, zuhaitz eta hodeien artean kutsaduraz inguratuta.

Itsasoak zabor-uharte bat du: ibaiak daramanaren metaketa bat.

Eskulturak erakutsi nahi du nola sartzen den bat-batean kutsadura naturaren zikloetan.

Erabilitako material birziklagarriak:

Artile urdina eta zuria / Kableak / Azkoinak eta torlojuak / Teklatuko teklak / Mota guztietako plastikozko eta/edo kartoizko ontziak / Mota guztietako tapoiak / Kartoia / Kartoizko hodiak / Zerrautsa edo zur zatiak / Alanbrea / Loreak edo landareen ebakinak / Ileak / Latexezko eskularruak / Hautsitako erremintak / Hautsitako piezak (guraizeak, orraziak, eskuilak...) / Oinarria: neurri egokiko zura / Botoiak / Makillaje-hondarrak oro har / Lastotxoak / Plastikozko mahai-tresnak / Txatalak (urdina, zuria eta marroia) / Kotoia

Es una base de 1x1 aprox. dividida en dos áreas principales: mar y tierra.

En la tierra hay un bosque y el pico de una montaña de donde baja un río que desemboca en el mar. También hay un zorro rodeado de contaminación entre los árboles y nubes

El mar tiene una isla de basura que es una acumulación de lo que lleva el río.

La escultura trata de demostrar cómo la contaminación irrumpe en los ciclos de la naturaleza.

Materiales reciclables utilizados:

Lana azul y blanca /Cables/Tuercas y tornillos/ Teclas de teclado/Envases de plástico y/o cartón de todo tipo/Tapones de todo tipo/Cartón/ Tubos de cartón/Serrín o trozos de madera/ Alambre/Flores o recortes de plantas/Pelos/ Guantes de latex/Herramientas rotas /piezas rotas (tijeras,peines,cepillos...)/Base: madera con las dimensiones adecuadas/Botones/Restos de maquillaje en general/Pajitas/Cubiertos de plástico/Retales (azul, blanco y marrón)/Algodón



“HONTZAREN ZUHAITZA EL ÁRBOL DEL BÚHO”

Zuhaitzik gabe ez dago oxigenorik. Gure planetaren birikak dira. Bere hostoek, erortzean, lurra elikatzen dute eta beste landare eta animalia batzuei bizia ematen diete.

Denak lo daudenean, hontzak bere jarduera hasten du eta planetaren oreka mantentzen laguntzen du.

Sin árboles no hay oxígeno. Son el pulmón de nuestro planeta. Sus hojas al caer nutren la tierra y dan vida a otras plantas y animales.

Cuando todos duermen, el búho comienza su actividad y contribuye a mantener el equilibrio del planeta.



“ONDAREA LEGADO”

Eskulturak umeen sehasketan zintzilikatzen diren mobil bat irudikatu nahi du, zeina gehienbat plastikozko zaborrez egina dagoen. Aldi berean, gure itsasoetan dauden hainbat animala irudikatzen dira, hauek ere zaborrez eginda. Modu onetan etorkizuneko generazioei uzten diegun ondarea sinbolizatu nahi da, zeinetan ekosistema itsastarrak plastikoz eta beste hondakin iraunkorrez josiak dauden.

La escultura representa un móvil como el que se instala en la cuna de los niños hecho principalmente de basura de plástico. A su vez, la estructura y los colgantes son diferentes animales que se pueden encontrar en nuestros mares. Todo el conjunto está hecho de basura y está lleno de basura, simbolizando de este modo el legado que dejamos a generaciones venideras con los ecosistemas marinos llenos de plásticos y otros residuos de larga duración.



“SINBIOSI ANIZTASUNA SIMBIOSIS MÚLTIPLE”

Zein izan behar du gure harremana lurrarekin? Nolakoa izan behar da gure erlazioa gainerako izaki bizidunekin? Ortzadarren uste dugu kolektibitatea, elkartasuna, laguntza, koexistentzia eta integrazioa direla gure eskolaren eta gure ikastetxea osatzen dugun pertsonen bizi-garapenerako funtsezko kontzeptuak. SINBIOSIAREN ideian integratzen diren kontzeptu horiek irudikatu ditugu eskultura automata honen bidez, gizateriak lurrarekiko duen beharrianari erreferentzia egiten diona, lurrak gizateria behar duen bezala. Unibertsoarekin harreman sinbiotikoa sortzeko garaia da. Ordua da planetarekin dugun harremana zalantzan jartzeko eta energia berriztagarriak bezalako harreman sinbiotikoagoak bultzatzeko.

¿Cuál tiene que ser nuestra relación con el planeta tierra? ¿Cuál tiene que ser nuestro vínculo con el resto de los seres vivos que inundan nuestro planeta? En Ortzadar creemos que la colectividad, la solidaridad, la ayuda, la coexistencia y la integración son el desarrollo fundamental para el desarrollo vital de nuestra escuela y de las personas que integramos nuestro centro. Estos conceptos, que se integran en la idea de la SIMBIOSIS, son los que hemos representado mediante esta escultura “automata” que hace alusión a la necesidad que tiene la humanidad con la tierra, como la tierra tiene de la humanidad. Es hora de crear una relación simbiótica con el universo. Es hora cuestionarnos nuestra relación con el planeta e impulsar relaciones más simbióticas como son las energías renovables.

IES OÑATI BHI
OÑATI

“Natur Inguruneko Gidaritza eta Aisialdiko
Teknikaria” Zikloko Erdi Mailako Ikasleak
Alumnado de Ciclo Medio de “Técnico en
Guía en el Medio Natural y de Tiempo Libre”



“LURRA-INDUSTRIA- LURRA TIERRA-INDUSTRIA- TIERRA”

Izakiak sortutako hondakin industrialak berriz naturan integratu beharraren errepresentazioa da gure eskultura

Nuestra escultura es la representación de la necesidad de reintegrar en la naturaleza los residuos industriales generados por el ser humano.

